

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEAN EUSKARA IRAKASLE LANPOSTU BI BETETZEKO ETA LAN-POLTSA OSATZEKO LEHIAKETALDIAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK.

Oinarrietako 8. artikulua honela dio:

“Leihaketaldia:

Oposizio-aldia gainditzen duten izangaiak lehiaketa-aldira pasatuko dira.

Merezimenduak kalifikatzeko, oposizioko laugarren ariketaren emaitzak argitaratu ondoren, hamar (10) egun balioduneko epea ezarriko da aipaturiko fasea gainditu duten hautagaiek merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko (egiaztagiriak aurkeztea). Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte hartutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Eskabidean alde zurretik jaso ziren merezimenduak baino ez dira baloratuko, baldin eta, goian adierazitako epearen amaieran, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz behar bezala egiaztatu badira.

Lehiaketa aldiak ez du baztertze indarrik edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko eta oposizio aldia gainditzen duten hautagaientzat baino ez da izango.

Epaimahaiak honako meritu hauek baloratuko ditu, baldin eta eskabidean horrela zehaztu badira, 4.6. atalean jasotzen denarekin bat etorritik.

- a) Prestakuntza (gehienez 10 puntu)
 - Doktoregoa Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean: 1 puntu.
 - Masterra Euskal Filologia edota Hizkuntzen ikas-irakaskuntza alorrean: 1 puntu.
 - Hizkuntza bera (euskara) langai duten ikastaroak: gramatika, testugintza, idazkuntza... Gehienez 1,5 puntu. 15 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu.
 - Hizkuntzen irakaskuntzaren didaktika ikastaroak. Gehienez ere 1,5 puntu. 20 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko, 0,25 puntu.
 - C2 mailan irakasle izateko HABEren gaikuntza ikastaroa: puntu 1
 - Moodle edota antzeko LMSei buruzko ikastaroak, ikasmaterialak edo programen diseinua on-line, ikas-komunitate birtualen dinamizazioa eta horrelako edukiekin zerikusi zuzena duten ikastaroengatik: 30 ordu bakoitzeko, 0,15 puntu, gehienez puntu 1.

DEBABE Udal Euskaltegiak e-posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

b) Argitalpenak: gehienez, puntu 1.

- Glotodidaktika edota euskalduntze-alfabetatze gaien buruzko argitalpenengatik: 10 orrialdeko 0,1 puntu.

c) Lan-esperientzia: gehienez, 18 puntu.

Euskaltegi irakasle-lanetan emandako 735 orduko puntu bat. Proporzionaltasuna ezarriko da. Eskarmentu hori HABEk egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

Kontuan izango dira Euskaltegi irakasle lanetan egindako orduak, hain zuzen ere, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte egin direnak.

Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratzen den egunera arteko ikasturteari dagozkion orduak justifikatzeko, ordu horiek eman diren edo ematen ari diren Euskaltegiak egindako egiaztagiria aurkeztu beharko da, baldin eta euskaltegia HABEren erregistroan inskribatuta badago.

d) HABEren eta/edo HAEEn deialdietan egindako aztertzaile edo tutore lanak. Gehienez 1,5 puntu; 0,5 puntu deialdiko.

Hona hemen lortutako emaitzak:

NAN ZENBAKIA	PUNTUAZIOA	OHARRAK
1601*	22,15	
1714*	0,40	
3341*	0,50	(3)
3808*	20,84	
3873*	21	(1), (2)
5145*	0,75	
5725*	19,5	
9316*	4,41	
9877*	8,87	

(1) Argitalpenean parte hartzea baloratu ahal izateko, orrialde kopurua eta egiletza egiaztatu behar dira.

(2) Azterketa diseinatzea ez da haintzat hartzen.

(3) 2023ko maiatzaren 2ra arteko eskarmentua zehaztu gabe euskaltegi agiriarekin.



“Erreklamazioak: hiru laneguneko epea emango da emandako kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko, kalifikazioak Mankomunitatearen webgunean eta iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.”

Erreklamazioak jartzeko azken eguna **ekainaren 24a** izango da.

Erreklamaziorik egon ezean, **ekainaren 26an** argitaratuko da behin betiko emaitzen zerrenda web orrian. Bertan, oposaketan parte hartu duten izangaien emaitza guztiak argitaratuko dira ariketaz-ariketa.

Elgoibar, 2024ko ekainaren 18a

Izp.: Susana Gurrutxaga Arriola
EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA

DEBABE Udal Euskaltegiak e-posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

Aita Agirre 3, 3.a
ELGOIBAR
943 742 731

Sabanika aldapa, 4
MUTRIKU
943 603 094

Ifar kalea, 12
DEBA
943 192 236